

# Bero-beroan

## 4. Plana administraziorako

**EUSKO JAURLARITZAKO** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2008 eta 2012 bitartean Administrazio langileengan aplikatuko den Euskararen Erabilera Normalizatzeko 4. Plana aurkeztu du. Planak EAEko administrazioetako 6.556 langileri eragiten dio. Horietatik %41ek (2.680k) dute euskara eskakizuna. 2.680 horietatik 444k ez dute hizkuntza profila egiaz-tatu; bai, ordea, hura lortzera derri-gorturik ez zeuden beste 1.011 langi-lek. 2.876 lanpostutan derrigorrezkoa izango da euskararen ezagutza egiaz-tatzea eta 3.680 lanpostutan meritu bezala baloratuko da. Plana martxan jartzeko euskara teknikariek, ardura-dunek eta langileek osatutako lan tal-

deak sortuko dira. Eurek erabakiko dute, besteak beste, zein zerbitzu eskaini beharko dituzten euskaraz.

## Evo Morales hizkuntza gutxiagotuz “Berria”n

**ELKARRIZKETA LUZEAN** Boliviako hizkuntzez galdetu dio *Berriak* Morales presidenteari. Hona pasarteetako bat: “Analfabetismoa desagertzea da nire ametsa, gure aitona-amonek beren hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikastea. Amets hori bete dezakegu Venezuelaren eta Kubaren laguntza eta gure agintari eta maisu-maistren elkarlana baldin badugu... Denena ez dugu; bestela honezkero ametsa bete da”. Gaur egun Boliviako Konstituzioak gatzelania baino ez du jasotzen hizkuntza ofizialtzat. MASEk (Movimien-

to al Socialismo) eta beste bederatzita indar politiko txikik proposaturiko konstituzio berrian, ofizialtasuna ematen zaie Boliviako 32 hizkuntzei.

## Arabako EAE-ANVren proposamena

**ARABAKO** Biltzar Nagusietako EAEk euskara sustatzeko hamar ekimen aurkeztu ditu. Besteak beste, euskara teknikarien lan poltsa eratzea, lau urtero inkesta soziolinguistikoa egitea eta bide seinaleetan euskara areago-tzea proposatu du.

### BAHEA

Joanmari Larrarte, EKTko kontseilari ordezkariak *Berriari* esanak: “2006tik aurrera erdarazko egunkariei laguntzak ematen zaizkie euskarazko gehigarriak egiteko, eta azken urteetan ez bezala, aurreten nagusiki erdaraz ari diren telebista batzuei ere eman zaie laguntza. Hedabide elebidunen ekarpena aspaldi jarri izan da zalantzan, eta beste noizbait esan izan dugun bezala, erdarazko hedabideak euskalduntzen joateko apustua egin behar bada (eta zoritxarrez ez dugu uste horren aurrean gaude-nik), bestelako diru sail batzuk sortu beharko lirateke horretarako, ‘euskarazko hedabideak sendotzeko’ erabiltzen den dirua euskarazkoetara bideratuta”.

Patziku Perurenak *Diario Vascon* esanak: “Bi hizkuntzatan ongi mintzo dela edo ongi idazten duela uste duena, eta hiru edo lau hizkuntzatan zer esanik ez, erdi-purdiko bizimoduaren eredu bairik ezin liteke izan. Gaur egungo kulturak bizi duen mediokritatearen ezaugarriarik nabariena horixe duzu. Ez, ezin dut imajinatu inor, munduko sorkari bakoitza aldiro binaka senditzen eta izendatzen. Gure bihotza ez da horren hipokrita, nahita ere ezingo luke izan aldiro aho biko”.

### TALAIAN

## Arma negoziua

Carme Chacón Espainiako Estatuko Defentsa ministroak iragarri du, datozen asteotan Gobernuak alde bakarreko luzamendua onartuko duela luku bonbak erabiltzeko, ekoizteko, biltegian jasotzeko, erosteko eta eskuz aldatzeko. Bestalde, Espainiako Estatuan munizio horiek ezabatzea aginduko du. Zer dira luku bonbak? Jostailu itxura dute tramankuluok eta hogeita hiru gatazka armatu baino gehiagotan erabili dira munduan zehar. 100.000 pertsonatik gora hil dituzte eta beste milaka zibil elbarri utzi, bereziki haurrak. Zergatik haurrak? Bonbak jostailutzat hartzen dituztelako. Haurrek bonbak lurlean ikusi eta eskutan hartu edo ostikoz jotzen dituzte. Batzuk hil egin dira eta beste batzuek besoak edo hankak galdu dituzte. Horrelako bonbak, eta baita astunagoak eta arinagoak ere, Euskal Herrian egin izan dira. Gasteizen sortutako EXPAL (Explosivos Alaveses) enpresak arma jostailu horiek erruz ekoitzi, esportatu eta baliatu ditu, Instalaza eta Santa Barbara enpresek egin duten bezalaxe.

Espainiar ministroak esan du luku bonbak “sententziarik gabeko heriotz zigorra” direla. Hala bada, nork dio giza eskubideak defendatzen dituela? Nolatan begiratu dute bestaldera orain arte? Horrelako armak ekoiztea debeatuko al dute, seguru? Alabaina, zergatik jarraitzen dute horiek adina hilgarri edo hilgarriagoak diren armak, –hala nola, borrokarako hegazkin europarrak, erasorako Tigre helikopteroak eta Leopard kanoi modernoak– ekoizten? Euskal Herriko hainbat enpresek (Sapa, Sener, Aernova, ITP eta hainbat ikerketa zentro) ekoizten dituzte eta baita Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu ere. Horiek ez dira “sententziarik gabeko heriotz zigorrak”? Armak ekoiztea negozio galanta da enpresentzat eta horiek finantzatzen dituztenentzat, bereziki BBVArentzat. Giza eskubideak propaganda eta demagogia hutsa dira.

Juan Mari Arregi

## Samin begiradak kale gorrian

**IÑAKI DE JUANA CHAOS** abuztuaren 2an espetxetik ateratzen denean zalaparta mediatiko handia izango dela ziurtatua dago jada. *El Mundo* egunkariak joan den asteburuan altxatu zuen erbia: Donostiako Amara auzoan bere ama zenaren etxean biziko ei da De Juana eta hori onartezina da egunkari eskuindarrarentzat, bere gainean eta auzoan ETAREN biktima zenbait bizi delako eta haien zati De Juana bizilagun izatea umiliagarria delako.

Urruntze edo desterru zigorren ezkilak entzun dira jada eta datozen egunotan, zalaparta mediatikoaz gain, izaera juridikoz jantzitako neurri larriagorik ere ehuntzen hasiko da seguruenik. Hala izan da euskal presoaren aurkako beste neurri askotan ere, lehenik komunikabideekin alarma soziala piztu eta gero epaitegietan alarma sozialarekin zigor neurria justifikatu. Iñaki de Juanaren azken gose greba ekarri zuen hiru urteko espetxe zigorra –oraintsu beteko duena– gisa horretako lapikoan egosi zen. Berdin Unai Parot eta berarekin hasitako *Parot Doktrina* ospetsuarekin edo beste neurri juridiko askorekin.

Kontua da, ordea, 80ko hamarkadan etakide ugari 30 urteko espetxe zigorra –orduko handiena– jarri zitzaizkion, Estatuak ez zuela pentsatuko hiru hamarkada geroago “iparreko gerra” agendaren lehen lerroan izango zutenik. Zoritxarrez hala da oraindik, gatazka bortitz batek bere baitan dakartzan osagai mingarri guztiekin: hildakoak, zaurituak, torturatuak, presoak, atxilotuak... denak nahasian elkar bizitzen eta egoera deseroso ugari sortuz, adibidez, hildakoen senideek eta torturatuek

behin baino gehiagotan egiten dutelako topo heriotza edo torturak eragin dituztenekin. Erremedio gaitza du horrek gatazka irauten duen artean, eta bakea lortu ondoren ere ur uherretakoa ei da errekontziliazioarena.

Iñaki de Juanari dagokionez, libre uzten dutenean beste edozein pertsonak bezala beharko luke, aske, horrek bere mugimendu eta jarduerarekiko esan nahi duen guztiarekin. Espainiako justiziarekiko bereak bete ditu eta kito.

Badira beste kasu larri ugari justiziarekikoak kitatu ere egiten ez direnak, horietako nabarmenenak torturarekin zerikusirik dutenak. Berriki emandako bi adibide esanguratsu gogoratu besterik ez dago: iragan maiatzean Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuak tortura kasuen inguruan zuen jarrera oztopatzailea salatu zuen, eta bereziki torturak eragiteagatik zigortutako segurtasun indarretako kideei behin eta berriz indultua ematea.



Antonio Basagoiti da EAeko PPko lehendakari berria.

Beste kasu esanguratsua oraintsu zendu berri den Juan Antonio Gil Rubiales poliziarena da. Espainiako Auzitegi Gorenak Joseba Arregiri eragindako torturengatik –horien ondorioz hil zen– zigortu bazuen ere, lehenik indultatu eta hil ondoren Espainiako Gobernuak era guztietako ohore eta dominak jarri dizkio. Dozenaka dira halakoak.

ETAk hildako baten alargun edo seme-alabentzat beti izango da latza kalean gurutzatzea odol delituengatik preso izan den pertsona ezagun batekin. Irtenbide duinena elkarriketaz lortutako gatazkaren amaiera da, gaur gaurkoz amets ia gauza ezina herritar gehienentzat, polizi operazio arrakastatsuekin bestelakorik saltzen bada ere. Saminaren irtenbidea ezin da izan beste edozein herritar bezain libre diren preso ohien eskubide urraketa.

**ESKU BETE LAN** du Antonio Basagoiti EAeko PPko lehendakari berriak. Edozein modutan, Kongresuan irudikatu dena baino sueltoago ibiliko da bere jardunean. Maria San Gilen aldekoek, hitz eder eta behartuez gain, ponentzian eduki gogorrak sartzea lortu dute. Baina Espainian gailendu den PPren estilo berria ere samur txertatuko da Basagoitiren eskutik, ez dirudi San Gilen sektoreak alderdian barne oposizioa egiteko behar den adina indar duenik.

Datozen EAeko hauteskunde autonomikoen kanpaina luzean eta ondoren sortuko den egoera estuan ikusiko da gidari berriaren abilezia. Jeltzaleak Ajuria Enetik egozte da balizko saria eta PSE-EEK emaitza onak baditu PP giltzarri izango da horretarako.